

**BILBAO SILVER LAB PROIEKTUAK EGINDAKO
ERRONKARI ERANTZUNGO DION ETA BILBON
PROBATUKO DEN IRTENBIDEA HAUTATZEKO
OINARRI ARAUTZAILEAK**

Edukia

1. Zioen azalpena.....	3
2. Deialdiaren xedea.....	4
3. Zein erronkari erantzungo zaion	4
4. Entitate onuradunak.....	4
5. Hautatutako proposamenentzako onurak	5
6. Deialdian parte hartzeko betekizunak	5
6.1 Administrazio-betekizunak.....	5
6.2 Probatu beharreko irtenbidearen baldintza teknikoak.....	6
7. Proposamenen aurkezpena.....	6
8. Aurkeztu behar diren dokumentuak	7
8.1 Administrazio-agiriak.....	7
8.2. Azalpen-memoria	8
9. Hautaketa-irizpideak	8
10. Hautaketa-prozedura	9
11. Betebeharrak, ez-betetzeak eta zenbatekoa itzultzea.....	11
12. Irudi eta zabalkunderako eskubideak.....	11
13. Datu pertsonalen babesa	12
14. Konfidentzialtasuna	12
15. Indarraldia	13
16. Oinarrien interpretazioa eta garapena.....	13
17. Proiektuak garatzeko baldintzak	13

1. Zioen azalpena

BILBAO EKINTZA, EPELek (hemendik aurrera, "BILBAO EKINTZA"), Bilboko hirirako aberastasun ekonomikoa eta soziala sortzea du helburu, enpresak sortzeko eta hazteko, bisitariak eta talentua erakartzeko eta enplegua lortzeko aukerak hobetzeko.

Testuinguru horretan, BILBAO EKINTZAK Espezializazio Adimenduneko Unitate bat du Hiriko Garapen Sailaren barruan, eta unitate horrek, lehenetsizko helburuen artean, hiriaren garapen ekonomikoa proposatzen du, goraka doazen sektore jakin batzuen aldeko apustu berezia eginda, espezializazio adimenduneko estrategiaren barruan, eta horien artean Zilarrezko Ekonomia dago. Horretarako, laguntza-programa espezifikoa babestu, diseinatu eta gauzatu ditu, eta, aldi berean, prozesu berritzaileak errazten ditu, Bilbo arlo bakoitzeko erreferente bihurtzeko.

Bilboko biztanleriaren aurreikuspenek hiriaren zahartze demografiko argia erakusten dute, eta, beraz, erronka da hiriarentzat. Alde horretatik, Udalak zahartze aktiboa, kolektibo horren parte-hartze soziala eta segurtasuna sustatu nahi ditu, zahartu ahala pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Hala, zahartzeak aukerak eta erronkak eskaintzen dizkio gizarteari. Ekonomiaren eta enpresaren ikuspegitik, zahartzea enplegua eta merkatua sortzeko aukera ere bada. Helburua, beraz, "Zilarrezko Ekonomia" bultzatzea da, zahartze-prozesuan dauden pertsonekin lotutako produktuak eta zerbitzuak sortzeko berrikuntza baliatuta.

Horregatik guztiagatik, Bilbao Ekintzak, SSI Taldearen laguntzarekin, Bilbao Silver Lab proiektua jarri du abian. Proiektuaren helburua da enpresek irtenbide berritzaileekin erantzutea 65 urtetik gorako biztanleen erronka espezifikoei, eta haien produktuak eta zerbitzuak Bilbon probatzea.

Ildo horretan, eta enpresa ekosistemari abiarazi beharreko erronka zehatz bat hautatzeko, proiektua 3 arlo tematikotan hasi da lanean, arlo bakoitzean adituak diren profesionalak eta eragileak osatutako hainbat Focus Group horien bitartez: osasuna eta zaintzak; etxebizitza, eta aisia, merkataritza eta turismoa. Era berean, hainbat elkartetako adinekoek osatutako Aholku Batzordea sortu da. Kontseilu horretan, Focus Group tematikoei planteatutako eta konpondu beharreko erronkak alderatu eta lehenetsi dira.

Azkenik, zentro teknologikoetako, unibertsitateetako eta enpresa-elkarteetako hainbat eragilek osatutako talde eragile bat eratu da, eta, aurreko lehenespeneren arabera, oinarri hauetan ezartzen den erronka planteatu du. Horri esker, prozesu bat irekitzen da, enpresa interesdunek beren proiektuak planteatu ahal izan ditzaten, hain zuzen ere planteatutako erronkari erantzuteko.

2. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea enpresa bat hautatzeko prozedura arautzea da. Bilbao Silver Lab proiektuan jarritako erronkari erantzungo dion produktu edo zerbitzu bat probatzeko aukera emango zaio enpresa horri.

3. Zein erronkari erantzungo zaion

Egindako hausnarketa-prozesuaren ondoren, Bilbao Silver Labek ezarri duen erronka da etxeko pertsonen bizi-kalitatea luzatzea beren zahartze naturalaren zikloan. Horretarako, alde batetik, prebentzioa eta adinekoen eta haien zaintzaile familiarren eta familiakoak ez direnen zaintza (fisikoa zein mentala) azpimarratzen ditu, eta, ahal den neurrian, hauskortasuna eta/edo mendekotasuna atzeratzen ditu.

Erronka horren definiziora iritsi gara, besteak beste, hauxe egiaztatu ondoren: adinekoen % 85ek baino gehiagok nahiago du etxean zahartu, familia giroan, eta, ahal den neurrian, beren gauzen eta maite dituzten pertsonen inguruan bizi direla. Etxean zahartzeko gogo hori ez da norberaren lehentasun hutsa. Osasunaren Mundu Erakundeak azpimarratzen du zahartzen den lekuak eragin handia duela pertsonen osasunean: leku ezagun batean zahartzen bada, konfiantza, independentzia eta autonomia mailak handitzen dira (OME, 2015).

Horregatik bilatzen dira irtenbide, produktu eta/edo zerbitzu fisiko eta/edo digitalak, arduratsuak, eskuragarriak eta hartzailerek eta/edo haien zaintzaileek erabiltzeko modukoak, adineko pertsonaren etxeko egonaldia ahalik eta bizi-kalitate handienarekin luzatzea ahalbidetuko dutenak, bai prebentzioari dagokionez (fisikoa eta/edo mentala), bai hauskortasunari eta are mendekotasunari dagokienez.

4. Entitate onuradunak

Hauexek aurkeztu ahal izango dituzte planteatutako erronkaren beharrei eta eskakizunei erantzuteko proposamenak:

- Banakako enpresaburuak eta/edo mikroenpresak.
- Enpresa txiki eta ertainak.

Onuradun izan nahi duten erakundeek banaka edo taldeka parte hartu ahal izango dute proiektu honetarako lankidetzeta-hitzarmen espezifikoak dituzten beste batzuekin. Hala denean, proiektuak elkarrizketa bakarra izendatu beharko du, eta elkartutako erakundeen erantzukizun eskusiboa izango da erantzukizunak edo eskubideak haien artean banatzea, eman daitekeen esleitutako zenbatekoaren banaketa barne. Horretarako, elkarteko buru izendatutako enpresa edo erakundea aurkeztutzat joko da.

Ezin izango dira onuradunak izan ez administrazio publikoak, ez sozietate publikoak, ez haien menpeko edo haien lotutako entitateak.

5. Hautatutako proposamenentzako onurak

a) Produktua edo zerbitzua probatzeko aukera

Bilbao Silver Labek aukera eman nahi dio hautatutako proiektuari bere soluzioa gehienez ere sei hilabetez probatzeko, erabiltzaile potentzialak dituen ingurune errealean. Bilbao Ekintzak probatzeko inguruneko baldintza egokiak emango ditu, eta, gainera, silver merkatuan sartzeko gako eta eragile erabakigarrii buruzko aholkuak emango ditu.

b) Ikusgarritasuna eta zabalkundea

Era berean, ikusgarritasuna emango dio hautatutako proiektuari, Bilbao Ekintzaren eta SSI Taldearen komunikazio-kanalen bidez, eta proiektuari zabalkundea eman diezaioketen Bilbao Silver Laben beste eragile laguntzaile batzuen bidez.

c) Onura ekonomikoak

Bilbao Ekintzak 10.000 € emango dizkio hautatutako proiektuari. Zenbatekoa bi zatitan ordainduko da: 5.000 € proba egiteko akordioa sinatzen den unean, eta 5.000 € proba behar bezala amaitu ondoren, Bilbao Ekintzaren irizpide teknikoaren arabera.

Horrez gain, aukeratu ez diren proposamenetako hiru, gehienez, SSI EkinSilverEconomy aholkularitza eta mentorizazio zerbitzuan sartu ahal izango dira, sailkapenean duten posizio-ordenaren arabera. Zerbitzua proiektu bakoitzerako egokitzat jotzen diren taldeko eta banakako saio batzuetan zehazten da (gehienez ere 2 taldekoak eta 6 banakakoak), gehienez 6 hilabeteko epean (proiektu bakoitzeko 1.650 eurotan baloratuta dago eskeinitako zerbitzua). Gainera, irtenbide horiek gehienez 6 asteko formatuan probatuko dira.

6. Deialdian parte hartzeko betekizunak

6.1 Administrazio-betekizunak

Honako deialdi honetan parte hartu ahal izango dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek. Probatu beharreko produktua edo zerbitzua oraindik enpresa gisa eratuta ez dagoen ekintzailtzako edo barne-ekintzailtzako proiektu bati badagokio, enpresa berri gisa alta emanda dagoela egiaztatu beharko du testak egiten hasi aurretik, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du betiere.

Era berean, aurretik aipatutakoak aurkeztu ahal izango dira, baldin eta ebazpen irmo baten bidez diru-laguntzak edo laguntzak jasotzeko aukera galtzarekin zigortuta ez badaude, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean ez badaude, ezta sexu-bazterkeriagatik zigortuta ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatutakoaren arabera.

Era berean, ezingo dute parte hartu aurretik edozein erakunde publikok emandako laguntzak itzultzeko dituzten (guztiak edo partzialki) pertsona fisikoek edo juridikoek, ez baldin bada egiaztatzen itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela.

Era berean, ezingo dute parte hartu Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan onuradun izatea eragozten duen egoeraren batean daudenean.

Parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridikoek edo enpresek egunean izan beharko dituzte zerga-betebeharrak.

6.2 Probatu beharreko irtenbidearen baldintza teknikoak

Proiektuak balorazio fasera igaro ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte (sarbide-fasean egiaztatuko dira). Hala ez balitz, fase hauetatik kanpo geratuko lirateke:

Proposamenaren garapen maila. Proposatutako produktuak edo zerbitzuak garapen maila nahikoa izan beharko du, lehen benetako bezeroekin probatu ahal izateko; hau da, prototipoak (produktuak edo zerbitzuak) funtzionatzeko gai izan behar du, hark funtziona dezan lortu nahi den baldintza errealetan. Kontzeptu hori TRL (Technology Readiness Level) 6-7 heldutasun mailaren antzekoa izango litzateke. Era berean, baztertu egingo dira probatzeko beharra gainditu duten garapen mailako proposamenak, eta kanpoan utziko dira jada merkatuan dauden irtenbideak.

Azalpen-memoriaren 1. atalean justifikatu beharko da betekizun hori.

Probatzearen bideragarritasuna. Probatzeko ingurune egokia eskain dakiekeen proposamenak soilik igaro ahal izango dira balorazio-fasera. Horretarako, kontuan izan behar da Bilbao Silver Labek 60 eta 85 urte bitarteko pertsonak dituela Bilboko unibertso baten azterketa egiteko, erabakitzeko gaitasuna dutenak. Proposatutako produktua edo zerbitzua etxean, bizilekuan edo hirian probatu daiteke. Gainera, SSI taldearen berezko instalazioak eta azpiegiturak ditu horretarako.

Azalpen-memoriaren 2. atalean justifikatu beharko da betekizun hori.

7. Proposamenen aurkezpena

Planteatutako erronkarako proposamen bat aurkeztu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek I. ERANSKINA bete beharko dute. ESKABIDEA ETA ZINPEKO AITORPENA, nahitaezko dokumentazioarekin batera, helbide elektronikoko honetara bidali behar da: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Lehiaketaren oinarriak eta dokumentazioa Bilbao Ekintzaren webgunean daude: <https://www.bilbaoekintza.eus/proyecto/bilbao-silver-lab>.

Eskaerak aurkezteko epea oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2024ko maiatzaren 6an bukatuko da, 13:00etan.

Zalantzarik izanez gero, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino astebete lehenago ere aurkeztu ahal izango da, helbide elektronikoa honetan: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla oinarri hauetan adierazten diren betekizunak eta betebeharrak.

8. Aurkeztu behar diren dokumentuak

8.1 Administrazio-agiriak

- Eskabidea eta zinpeko aitortpena, I. ERANSKINAREN arabera beteta eta sinatuta betiere.
- Proposamena aurkezten duen taldea osatzen duten pertsona guztien nortasun-agiri nazionalaren kopia.
- Proposamena aurkezten duen taldea osatzen duten pertsona guztien curriculum vitae (gehienez 2 orrialde).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten jatorrizko ziurtagiriak, salbu eta ofizioz egiaztatzeko baimena eman bada.
- Eskatzailearen ordezkari-tza-ahalmena egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia, ekonomia jardueren gaineko zergan alta emanda egotearen kopia eta erakundearen IFKren kopia.

Dagokion produktua edo zerbitzua oraindik enpresa gisa eratuta ez dagoen ekintzailtzako edo barne-ekintzailtzako proiektu bati badagokio, enpresa berri gisa alta emanda dagoela egiaztatu beharko du testak egiten hasi aurretik, eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du nahitaez.

Lehiaketa honetan parte hartzeko proposamena aurkezten duen pertsonak bere gain hartuko du egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa, baita aurkeztutako gainerako agiriarena ere.

Eskabideak jaso ondoren, osorik betetzen ez badira edo beharrezko dokumentazioa aurkezten ez bada, hiru egun balioduneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua bidaltzen denetik zenbatzen hasita, akatsa zuzen dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten. Halaber, ohartaraziko zaie, hala egin ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela, eta espedientea artxibatu egingo dela beste izapiderik gabe. Bilbao Ekintzak ez du eskabide horri buruzko esanbidezko ebazpenik eman beharrik izango.

8.2. Azalpen-memoria

Parte hartzen duten pertsonak eta enpresek proposamenaren memoria aurkeztu beharko dute formatu digitalean (20 orrialde gehienez, eta letra tipoaren tamaina behar bezain irakurgarria), gutxienez eduki hau izanda:

- **Proposamenaren garapen maila:** erronkari erantzuteko proposatutako produktuaren edo zerbitzuaren eta haren garapen mailaren deskribapen zehatza.
- Proposatutako produktua edo zerbitzua **probatzeko beharrak:** zenbat pertsonari egin behar zaion proba, nori zuzenduta dagoen, zenbat denbora aurreikusten den eta zer giza baliabide eta baliabide material behar diren.
- **Bideragarritasun teknikoa:** produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarriak, planteatutako erronkari erantzuteko modua, funtzionatzeko edo erabiltzeko modua. Egingarritasuna, zer neurritan erantzuten dion erronkari eta zer neurritan estaltzen duen haren beharra. Enpresaren informazioa, baliabide teknikoak eta giza baliabideak. Lantaldea eta kide bakoitzaren gaitasunak, antzeko proiektuetan izandako esperientzia. Zehaztu proposamena proposamenari balioa ematen dion beste erakunde batekin batera aurkezten den.
- **Negoio-ereduaren deskribapena:** balio proposamena, zein merkaturi zuzentzen zaion (pribatua, publiko-pribatua, publikoa), hura eskuratzeko modua eta diru-sarrerak sortzeko modua. Azken erabiltzailearentzako sarbidea, merkaturatzeko estrategiak eta banaketa-kanalak. Merkatua eta lehia aztertzea.
- **Proiektuaren bideragarritasun ekonomiko-finantzariora:** aurrekontua, inbertsioak, finantzaketa, aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak.
- **Produktuaren edo zerbitzuaren berrikuntza mailaren deskribapena:** lehendik dauden beste produktu edo zerbitzuen gaineko berrikuntza maila. Berrikuntza formatuan, beharrari aurre egitean, tresnan edo erabilitako teknologian.
- **Eskalagarritasun potentziala:** hazteko edo hedatzeko aukerak. Beste ingurune batzuetan hedatzeko edo hazteko gaitasuna.

Edozelan ere, Bilbao Ekintzak beste edozein agiri edo informazio eskatu ahal izango die eskatzaileei, beharrezkotzat jotzen badu, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta ebaluatzeko.

9. Hautaketa-irizpideak

"Proposamenaren garapen maila" eta "testak egiteko bideragarritasuna" baldintza baztertzailak dira, eta sarbide-fasean egiaztatzen dira. Hortaz, bi irizpide horietan gutxieneoak gainditzen dituzten proposamenak soilik igaroko dira balorazio-fasera, oinarri hauen 6. atalean adierazitakoaren arabera.

Horren arabera, proposatutako produktuak edo zerbitzuak behar adinako garapen maila izan beharko du, baldintza errealetan probatu ahal izateko, eta, gainera, Bilbao Silver Labek duen xede-publikoa eskatu beharko zaio.

Balorazio-fasera igarotzen diren proiektuak beheko taulan jasotako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta, gehienez ere, horietako bakoitzean adierazitako puntuazioak lortu ahal izango dira.

IRIZPIDEA	GEHIENEO PUNTUAZIOA
1. Bideragarritasun teknikoa	35
2. Negozio-eredua	25
3. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioa	20
4. Silver Economy delakoaren eremuko berrikuntza	10
5. Eskalagarritasun potentziala	10

10. Hautaketa-prozedura

Proposamenak baloratzeko, aurreko atalean ezarritako irizpideak erabiliko dira, eta bi fase bereziko dira. Sarbide-fasean, proposamenek ezarritako lehen irizpideak gainditu beharko dituzte: aurkeztutako produktuaren edo zerbitzuaren garapen maila, ingurune operatibo batean probatu ahal izango dena; eta bideragarritasuna, produktu edo zerbitzu horretarako behar diren testak Bilbao Silver Lab proiektuaren sarbideetatik eta baliabideetatik egin ahal izateko.

Sarbide-fasea amaitu ondoren, erabakia posta elektronikoz jakinaraziko zaie fase hori gainditu ez duten pertsona fisiko edo juridiko parte-hartzaile guztiei.

Lehen fase hori gainditzen duten proposamenak Bilbao Silver Lab talde eragileak baloratuko ditu, irizpide bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioen arabera.

Erakunde hauetako ordezkariak osatuko dute talde eragilea:

- Mondragon Unibertsitatea
- Vicomtech
- Worklan
- Emakumeekin enpresaburuen elkarte
- Urbegi Soziala Impact
- BBK Bootcamps
- Start up Factory
- Tecnalía
- BEAZ
- SSI Taldea
- Bilbao Ekintza

Puntuazio handiena lortu duten sei proposamenek, gutxienez 50 puntu lortzen badituzte, "elevator pitch" bat egin beharko dute. Bertan, beren proposamena defendatu ahal izango dute talde eragileko kideen aurrean.

Talde hori arduratuko da testak egiteko aukeratutako proiektua aukeratzeaz, baita aholkularitza eta mentorizazio zerbitzuan sar daitezkeen proposamenak aukeratzeaz ere. Hautatzeko irizpideak 9. ataleko berak izango dira, baina fase honetan hautatutako pertsonen presentzia fisikoa aprobetxatuko da epaimahaiak zehatzago aztertu ahal izan ditzan bere ustez garrantzitsuenak diren alderdiak, aurkeztutako proposamen bakoitzari buruzko ondorio zehatzagoak ateratzeko. Horregatik, proiektuak sailkatzea eragingo duen azken puntuazioa talde eragileak "elevator pitch" delakoa egin ondoren esleitutakoa izango da soilik, eta aurretik lortutako puntuazioa ez da kontuan hartuko.

Erabaki hori parte-hartzaileei jakinaraziko zaie, parte hartzeko eskabidean adierazi duten posta elektronikoaren bidez.

Gainera, lehiaketa esleitu barik utzi ahal izango dute, baldin eta, hautaketa-irizpideak aplikatu ondoren, proposamenetako bat ere ez bada egokitzat jotzen gutxienezko puntuazioa ez lortzeagatik.

Ez dira proposamen hautagarriak izango planteatutako erronkari erantzuten ez diotenak, ezta produktuak/zerbitzuak merkatuan egonda merkaturatzeko fasean daudenak ere, haien helburu bakarra bezeroen sarea handitzea izanik.

Sarbide-fasean hautatutako proiekturen batek talde eragilea osatzen duten entitateetako batekin loturaren bat badu, tartean diren erakundeak ezin izango du azken erabakian parte hartu.

Bilbao Ekintzak hirugarren pertsonen ohorearen aurkako edukiak dituzten planteamenduak baztertu ahal izango ditu, baita gaitzespen soziala eragin dezaketen, ordena publikoaren aurkakoak diren edo legezketasunaren esparruan ez dauden guztiak ere. Horrez gain, proiektuek eragindako arloaren arabera indarrean dagoen araudia errespetatuz lortutakoak izan beharko dute.

Testean parte hartuko duen proiektua hautatu ondoren, akordio bat sinatuko da hautatutako erakundearekin, eta, bertan, proba egiteko baldintzak, epeak eta betebeharrak zehaztuko dira.

11. Betebeharrak, ez-betetzeak eta zenbatekoa itzultzea

11.1 Pertsona edo enpresa onuradunen betebeharrak

- Testak arretaz egitea, proposamenaren bideragarritasunari buruzko ondorioak atera ahal izateko.
- Testak egiteko behar diren baliabide materialak eta giza baliabideak ematea.
- Enpresa onuradunaren eta Bilbao Ekintzaren artean akordio bat sinatzea, non alderdien konpromisoak jasoko diren eta testak egiteko baldintzak eta betekizunak zehaztuko diren.
- Bilbao Ekintzarentzat interesgarritzat jotzen diren ekosistemaren inguruko bilera, hitzaldi eta ekitaldietan aktiboki parte hartzeko konpromisoa hartzea.
- Komunikazioetan eta Bilbao Ekintzarentzat interesgarritzat jotzen diren beste kanal batzuetan publizitatea eta zabalkundea egitea.
- Proiektuan parte hartzeari dagokionez, hala eskatzen duten bitartekoen bidez elkarrizketatuak izateko prest egotea.
- Aurkeztutako produktuak edo zerbitzuak ezin izango du inolako legerik edo legez-eredapenik urratu, ezta jabetza intelektualaren eta industrialaren printzipioak errespetatu ere.

11.2 Ez-betetzea

Parte hartzen duten proiektuentzat lehiaketa honen oinarrietan ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez direla egiaztatzen bada, lehiaketatik kanpo geratuko da; ez-betetzea proiektu hautatua izan ondoren gertatzen bada, kanpoan uzteak berekin ekar dezake jasotako zenbatekoak itzuli beharra.

Hautatutako enpresak ez baditu betetzen Bilbao Ekintzarekin sinatutako akordioaren betebeharrak, non alderdi bakoitzaren betebeharrak zehaztuko baitira, jasotako zenbatekoa itzuliko du.

12. Irudi eta zabalkunderako eskubideak

Deialdi honetara aurkeztutako proposamen guztien jabetza industrialeko eta/edo intelektualeko eskubideak enpresa eskatzaileenak izango dira Hala ere, bai hautatutako enpresak bai enpresa parte-hartzaileek baimena ematen dute Bilbao Ekintzak eta SSI Taldeak, baita Talde Eragilea osatzen duten enpresek ere, enpresaren izena eta hari lotutako irudiak edo logoak erabil ditzaten, korporazio, publizitate eta sustapen helburuekin eta/edo hautatutako proiektua publiko orokorrari jakinarazteko, inolako lurralde edo denbora mugarik gabe, eta gertaera horrengatik inolako ordainsaririk sortu barik.

Bilbao Ekintzaren logoa eta adieraziko diren gainerako guztiak onuradunek sortzen dituzten inprimatutako materialetan gehitu ahal izango dira (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak), baita plaka oroigarrietan ere, baliabide elektronikoetan eta ikus-entzunezko baliabideetan edo idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan, aurretik Bilbao Ekintzan eskaera aurkeztuta eta horrek oniritzia emanda.

13. Datu pertsonalen babesa

Datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoarekin bat, Bilbao Ekintza, E.P.E.L. jakinarazi du deialdi honetako eskabideetan dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza, E.P.E.L.k aztertuko dituela. helbidea: Nafarroa kalea, 5. 48001 – Bilbao, eskatutako laguntzak eta/edo diru-laguntzak kudeatu eta izapidetu ahal izateko.

Datuak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko.

Tratamendu horiek Bilbao Ekintza, E.P.E.L.ri emandako botere publikoen erabileran oinarritzen dira. tratamenduaren arduradun gisa.

Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, legezko betebeharra izan ezik. Ez da datuen nazioarteko transferentziarik egingo.

Interesdunek eskubide hauek dituzte:

1. Zure datuak ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien tratamendua mugatzea edo aurka egitea. Horretarako, idazki bat bidali beharko duzu Tratamenduaren arduradunaren helbidera, nor zaren egiaztatu ondoren.
2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko.

BILBAO EKINTZA EPELek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo ezazu posta elektronikoko helbidera datos@bilbao.eus eta eskatu datu pertsonalen tratamendu honi buruzko informazio gehiago.

14. Konfidentzialtasuna

Lehiaketa honetako Oinarrien esparruan sortutako informazioa bakarrik alor horretako helburuetarako erabiliko da, eta datu pertsonalak eta enpresakoak konfidentzialtasunez erabiltzea bermatuko da, Oinarri hauetan publikitateari dagokionez jasotako ahalmenak albo batera utzi gabe.

Edozelan ere, haien ezaugarri orokorrak zabaldu ahal izango dira, eta, dagokionean, hautatutako proiektuen izena, haien jarduera eta lorpen nagusiak, bai eta talde sustatzaileko kideak ere.

15. Indarraldia

Lehiaketa honen oinarriak argitaratu ondoren aurkezten diren eskariei aplikatuko zaizkie, baita 7. atalean adierazitako eskariak aurkezteko epean ere. Epe hori luzatu ahal izango da, Zuzendaritza Nagusiak hala erabakitzen badu.

16. Oinarrien interpretazioa eta garapena

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.

Horri dagokionez, deialdi honetako punturen batean zerbait garatu, aldatu, egokitu edo kendu behar izanez gero, funtsa aldatu gabe, Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritza Nagusiari ematen zaio aldaketa horiek egiteko eskumena, baina Administrazio Kontseiluari horren berri eman beharko dio neurriak hartu ondoren egiten den hurrengo bileran.

17. Proiektuak garatzeko baldintzak

Proiektu parte-hartzaileen garapena ezin izango da edozein legezko bitartekoetan beste batzuei aintzatetsitako eskubideen kontrakoa izan, bai nazionalak baita nazioartekoak ere, eta ondorio horien barne egongo da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

Era berean, 1083/2006 (EE) Erregelamenduaren I. tituluko IV. Kapituluko 16. eta 17. artikuluen arabera, Bilbao Ekintzak enpresetarako eta enpresak sortzeko proiektuetarako dituen laguntza-tresnen bitartez, erakunde onuradunek egiten duten merkataritza-jardunak erregelamendu horretako irizpideak errespetatu beharko ditu. Hortaz, sentsibilizatu egingo da garapen jasagarriarekin eta ingurumenaren babes eta hobekuntzarekin lotutako jardunbide egokien inguruan, bai eta enpresen barruan bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzearekin lotutako ekintzen inguruan ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu-orientazioan oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat eginez, onuradunek proiektua eratzean eta garatzean lehentasunez euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, albo batera utzi gabe beste hizkuntza batzuk erabiltzea, proiektuak hala eskatzen duenean.